

Irakurraldia

Poesia

+

azaroak 22 20:00etatik aurrera

La Bodega taberna

URDAIZPIKOA ETA POESIA (I)

#heragia

Poemen egileak:

A ALDEA

Arantxa Urretabizkaia
Damián Pedrosa
Eider Rodriguez
Ingeborg Bachmann
Joxe Azurmendi
Juanra Madariaga
Leire Bilbao
Maria Merce Marçal
Miren Agur Meabe
Omar Nabarro
Seamus Heaney

B ALDEA

Amaia Lasa
Anne Sexton
Audre Lorde
Billy Collins
Blanca Varela
Ekhine Eizagirre
Harkaitz Cano
Joseba Sarrionandia
Joxe Kruz Aranberri
Unai Maleski
Xabier Montoia

A ALDEA

1. DENA DA HARAGIA

Haragia dira ileak,
haragi atzazalak;
haragia oinak,
haragi zapatak.
Haragia dira ezpainak,
haragi hezurak;
haragia begiak,
haragi tatuaiak.
Haragia dira hatzak,
haragi arnasa;
haragia musua,
haragi maskarak.
Haragia dira zainak
haragi hortz-haginak;
haragia odola,
haragi uhalak.
Haragia dira larruak,
haragi ipurdia;
haragia listua,
haragi eraztunak.
Haragia dira titiak,
haragi laztanak;
haragia zartadak,
haragi latexa.
Haragia dira malkoak,
haragi izerdia;
haragi oiaieneak,
haragi isuria.
Dena da haragia,
baita
haragia bera ere.

2. ANTSIEN OHARRAK

Haragiak eta haragiak daude.
Nik haragi berri batekin egiten dut amets.
Haragi horren atomoek elkar maite dute
ez dutelako ezagutzen
ez jogurt desnatatuen iragarkirik
ezta jantzi-dendetako tailen koderik ere.
Haragi horretako zeluletara ez da sekula iritsi
konparazio hitzaren oihartzunik.
Haragi horrek onetsi egiten ditu bere pitzadurak,
fetuen bolumenak utzitako labirintoak,
gernuaren erantzun anonimoak,
koipe-soberakinak.
Haragi horretan ez dago birus maltzurrik sorgor,
ez baita sentikorra ispiluekiko.
Eta bikain burutuko lituzke sintesi-erreakzioak
nire burmuinaren eta hezur-mami-azalen artean.

3. HARAGI HONEK NAHI DU LIBRE

Libre izan nahi dugu.
Guk, haragi honek, esperantza honek
nahi du libre.
Alferrik pasiatzen dira gure filosofoak
xinpletasun ximple hau sublimatu nahirik
abrakadabra baten bila,
misteriotsu asko, ideologiengatik jardinetan.
Haragi honek nahi du libre,
ez filosofia batek, ez klasetasunak
ez teologiak. Pinua pinudiak
definituko balu bezala,
guardasolak euria,
morena batek eguzkia.
Edo gurutzean ebanjelioa
hil balitz bezala.

Gizona ez da ideia bat.
Gizonak ez dira eskubide sorta bat.
Eskubideak ez dira
argumentu bat edo deklarazio bi.
Gizonak dira.

Zergatik ez aitortu:
mixerabile banaturik gabiltza
mendian otsoak bezala.
Gu, txindurriok zeruaren azpian
argonauta ustean.
Konstelazio bat delakoan bakoitza,
zigarroa bezala misto batekin
pizten delakoan libertatea.

Hola dio Jerusalemgo Talmudean
Rajanam rabinoak:
ez zen Israel desterrura joan
hogeita lau sektatan ezpaldu zen arte.
Merezi ditugu desterru bi eta hiru.
Ez ote zuen ba Prometeok
harrapatu egin behar izan sua?

Haragi hau ez da kondaira.
Gizon hau ez da Txurruka,
aspertu egingo litzateke
Londoneko plaza batean
Espainiaren ohorea lekukotzen.
Libre nahi luke,
ez monumenturik.
Ez da Elkano: nahiko mundu
zaio gure mendiarte.
Zumalakarregi? Tonto baten moduan
hil zitzaigun azkenean hura ere.
Preso daukagu orain Zegamako elizan
berpiztu ez dakigun,
esan ez dakigun bala batek
asasinatu zuela libertatea.

Gizon honek ez du hil nahi.
Haragi hau ez da Gernikako arbola.
Ez da arraza bat, ez da sozialista,
ez da sakratu, ez da ezer,
hiltzen den haragi da
eta ez du hil nahi.
Eta ez du hilda bizi nahi ere.
Libre nahi du.

4. MEMORIAL

Zer egin dezaket
udako arratsalde gorri batean
eguzkiak nire leihoari beldurra badio
eta zu ez bazaude?
udak ustekabean
neguaren erdian harrapatzen banau
derrepentean hostoak isiltzen badira
lau kanpai hots entzuten diren bitartean
hiru tanta lehor
eta epel bat
haize hilaren gainetik
nora jo dezaket
kalean topatuko ez bazaitut
gauzak nahiko gaizki ez doazen bitartean
tanta epel eskas bat
atsoen pauso azkarrak berotzeko
nola jakingo dut arbolak bizirik ote dauden
soinurik egiten ez badute
sirenen hotsa itzaltzeko.
gauza ez badira
nork esango dit zer gertatzen zaidan
lehenengo malkoa oraindik sortu ez denean
zeinen eskuak astinduko ditu
betazaletan
ezkutatu diren kanpaiak
non babestuko naiz
zure besoak urruti badaude

nondik sortuko da elektrizidatea
udak baimenik ematen ez badu
hiru kanpai ergel
eta laugarren bat
zeinen arnasak berpiztuko ditu adarrak
ni ere uda bihurtu naizenean
zer egin dezaket
udako usainak sortzen duen izerdi motelak bereganatzen banau
malko behar zuten urak
abuztuak itotzen baditu
nork aseguratuko dit
ez dudala sekula santan
trapuzko lorez egindako sonbrerorik eramango
lau kanpai asper
eta bigun bat
zer egingo dut
laino beroaren gainetik
dantzatzen ikasi ez badut
masailetako odolak begiek baino argi gehiago duenean
zertan ari zaren ez badakit
bero ala negua
zure azalaren inguruan
kaleak bihotza baino lehen lehertzen badira
nork aterako nau nire barrutik
zuk keinu bat egiten ez baduzu
paretarik besterik ez
teilatuen gainetik
zertarako isildu da eguna
zure ahotsa entzungo ez bada
sentitzen ditut
berriz
aurpegia zimurtzen didaten behatzak
sudurretik kokotsera
begietatik masailetara

bidea lantzen
kalean haize izpirik ere ez
ezta zure pauso baldarrak dakarren ifar
apala
zertarako gogoratu gerriko itximur hori
zu ez bazaude
eguna ala gaua zure izenaren gaietik
nola tragatuko dut ifernuko kea
zure loaren arnas freskoa ahaztu bazait
udak betirako bereganatu banau
zigarroaren usainak ere
altxatzeko indarririk ez badu
nork beteko ditu nire haragi hutsak
bozinak ere isildu badira.

5. LIZUNKERIAK

Zu gabe etxeak ez daki nire etxea izaten.
Aber hilaren hilotza bezala
edo denbora lizunaren sabelak
gaizki digeritu bizihatx uherra bezala.
Horma huts hauei so nago.
Perlek bezala
bizitza ilun eta itsas pekoaz
argitzeko zure haragia eskas dute.
Odol urrun eta haragizko etxe baten
nostalgiaz hazten nauen xxx-kiko
kartzelari bezala so nago horma hauei.

6. AGURRA

Haragia, nirekin ondo zahartu dena,
Esku pergaminatua, nirea fresko gordetzen zuena
jarri beharko litzateke izter zuriaren gainean,
haragia bera birgaztetu, une batez,
horrekin azkarrago aldendu dadin gainbehera,
azkar etorri dira lerroak, osasuntsu ia,
batez ere gihardura tentearen gainean.

Maitatua izateari utzi. Mina handiago zitekeen
izan. Ongi sentitzen da, bere atea erorita.
Baina haragiak, fronte lerroa belaunean duelarik,
esku zimurdunak, denak gauaz etorriak,
geruzatutako sorbalda-hezurak, non ez den berderik hazten,
izan zuen behin aurpegi bat babesean gordeta.

Ehun urtez zaharturik egun batean.
Animalia fidakorra zigorradapean
aurre ezarritako harmoniara ekarria
izan da.

7. AGUR-KEINUA

Larunbat arratsaldeetan ilara osatzen genuen
Loudanen harategiaren aurrean. Txahal haragi gorria, listari zuria,
paper marroia bilgoak egiteko zuzen
salmahaiaren ertzarekin ebakitzen zena.
Saiheskiak eta berna-hezurak
bertatik bertara bota, bildu eta begizta txiki batekin txukun lotuak,
baina artean odola zeriela. Pisu hila zintzilik,
inoiz uste izango nuena baino askoz ere astunagoa,
nire aitak xemaikoz xemaiko ordaindu bitartean.

Larunbat arratsaldeetan halaber bertako B-Gizonek,
arrote arren lanean, herria hartuta,
auzotar armatuak, jo goiak eta jo beheak desfilatzen,
batzuek aitari agur-keinua egiten zioten, pasaeran,
tiro egin izan baliote bezala eta nahita huts egin
edo, une horretan bederen, zein sokakoa den ez balekitez bezala.

8. HARAGIA

Ez dakit
hondartzako haizeagatik
edo
hainbeste eme zimelgabe zabaldurik
—nigandik hain hurbil
eta era berean hain urrun—
ikustearen frustrazioagatik ote den
baina ikusmira honek balio dit,
haragi gosea
idazketaren bitartez asetzen dut.

Hendaiako hondartza
egunez sentimendu bat da,
ezer ez den, inon ez dagoen,
inor ez direnen herri hau.
Ospitaleak, aireportuak,
kontzentrazio esparruak eta
Hendaiako hondartza.
Argia edo itsas marruma baino gehiago
zoko honetako mikromundua da nire bazka,
gure herriaren ezkerretik zentrora bitarteko
joera guztien mausoleo biziduna.

9. HITZA HARAGIA BIZITZA

“Eta hitza haragi egin zen”.
San Juanek bere ebanjelioari hasiera ematen jarraitzen du: “Hitza Jainkoa zen eta gure artean bizi zen”.
Nola? Hitza Jainkoa eta haragia?
Haragia bizitza?
Haragirik gabe bizitzarik ez?
Gorputz fisikoak betidanik existitu bai, baina gorputz bizidunentzat haragia behar beharrezkoa da.
Zerbait sentitu nahi duzu?
Ikusi, maitatu, handitu nahi bada...
Orduan, haragiaren bidez egin dezakezu.
Hara, egia izango da eta!
Bai. Pentsatzekoa da
sentimen-haragizko gizakia bagara,
nahiz zintzotasunaz jokaturuz,
nahiz aukerak haragikeriaz jasoz,
nola bideratu haragiaren erronka?
Nahiz eta begetariano izan,
beti gogoz eta haragiz egindako gauzak egiten jarraitzea behartuta egongo gara.
Haragiaren Jainko gisa gure bizitza baita!

10. EULIAK

Erruduntasunaren zingiran
ito nituen irritsez
busti gura dut lepoa,
debequatutako laztanekin.
Pausa daitezela haragian euli odolzaleak,
bizirik senti nadin eta goza dezadan
kontzientziaren ziztada lizunaz.

Erruduntasunaren zingiretan
ito nituen irritsez
busti gura dut,
azal azpiko damuaren zama kanporatu,
nire haragia agerian utzi.
Ez daitezen euliak izan zure odola
nirera ekartzeaz arduratuko diren bakarrak.

11. HARAGI GALDUA

Gutxi eginik zegoen okela jan duzu.
Aurraren bidez trukutzen ditugun ahoko entzimek
proteina desegiten duten bitartean
hortzen arteko zati deserosoak
ateratzen saiatzen ari zara mingainarekin.
Bat ahoan sentitzen duzunean
aukera bi dituzu: irentsi edo ez.
Zuk zati hori txu egiten duzu
gehiago aprobeztatzerik ez balego bezala.
Zati txiki hori neu naiz.
Etekin handirik ezin atera dakioken
haragi galdua.

B ALDEA

1. MAITASUNA

Maitasuna
fraude bat dela diote,
fraude hitza ulertu nahirik nabil
maitasuna
zer den ulertzeko.

Haragia

pusketaka
erortzen
ari zait
gelaz gela.

Azkaraten
aske eta beldurti
txoriak bezala
inoiz
atzera begiratu gabe.

2. AMODIO PROTOPOEMA

Amodio poemarik xamurrena
izkiriatu nahi nizuke
poeta erromantikoen xalotasun eta
erru gabeziarekin.

Zure zangoak luze-luzeak balira
eta ene zangoak zeureak bezain luzeak
mahaipen aurreratuko genituzke zangoak
zangalatrabatzera jolasteko.

Ene atzamarrak, zure larrua ukituz gero,
pospolo antzera izekiko lirateke.
Mundua arrisku larrian jarriko genuke,
gure besarkadagatik ikaratzen

ez dakit zenbat Richter eskalan.
Erdu harresia aihen-belarrak lez eskalatu,
erdu ontziaren kubiartara jauzten den
olatuaren gisan.

Erdu eremu lehorra hondatzera datorren
ekaitza bezala.
Erdu eta bihur ditzagun hitzak haragia.
Solda gaitzabela bata bestearen kontra.

Horrelako poema zoli bat egingen nizuke,
baina zer laburra den lirikarena.
Leihoa zabaltzean, zeldara, zure orde
errealitatea sartzen zait, altzairuzko atzaparrekin,
garrasika.

3. HILDAKO EMAKUMEENTZAT, POEMA ZINTZORIK EZ

Zer nahi dugu bata bestearengandik
geure istorioak kontatu ostean
zer nahi dugu
sendatzea zer nahi dugu
goroldio isilak gure orbainak estaltzea
zer nahi dugu
ahizpa boteretsu ez-beldurgarri bat
zeinak oinazea eramango baitu
edo amaren ahotsa pasabidean
ondo egin duzu
estreinako aldian laztana
ez duzu zertan
sekula gehiago egin.

Trumoiak zeruertzean
denbora erosten du beste istorio batekin
aire-baba zurbil bat
hildako haragiaren kadentzia
bokalak iluntzen.

4. HARAGIA ETA URDAI AZPIKUA

Edo aharia eta apezpikua.
Aharia,
Agian ar eria,
Edo agian, ezkutuan, arregia.
Sotanan zeraman gordean egia,
Bai, gordinegia
Bai boterearen esku luzea,
Eta baita nerabeen haragia.

Apezpikua,
Elizaren begikua,
Eta gizartearen begietan
Jatortasunaren estereotipua.
Jartzen da ahuspez tipua,
Non, bat egiten duten
Bataren eskua
eta bestearen pitua.
Hasten da igurtzien erritua,
Hurbiltasun espiritualaren
Bertsio berritua.
Baina, jakin beza zerrikerietan adituak
Zerri izterrak zintzilikatzetik
Sortzen dela
Urdai azpikua.

5. HARAGIA ETA ODOLA

Odola eta haragia
haragia eta odola
baizik ez gara
ezpata doinu inausia besterik ez gara
gertu hiltzera kondenatuak
leihoak margoturik daude gure hormetan
haragia eta odola baino ez gara eta
odolaren oihartzuna ez da sekula izan elurrarena
Murruan bermaturik dagoen bizikletan
egin nahi genuke ihes
baina bizikletak ere margoturik daude hormetan
odola eta haragia baino ez gara baina
belar bildua bezain eskas den odolbildearen
hotsari ezin behatuz
besterik sinetsi nahi genuke
amodioa merkezurrean eskaini
zizelkatu poemok herio haragitsuaren ezpainetan
behiala geure izan zen odolaz nahi genuke
ordea launakako diagonalaki erdibituz
daude margotuak emakumeak eta poemak gure hormetan

Odola eta haragia
eta eskubete hazi agian
koxkor daitezen apurka-apurka basamortu berriak

6. GARENA

Larru gara.
Larrua eta orbain bat gutxienez.
Orbain bat gutxienez, eta erresumina.
Erresumina eta...
Fite bueltatu egoitzako giltzak, arren.

Zerizana gara.
Zerizana eta barrura begiratzeko nagia.
Barrura begiratzeko nagia, eta betiko leloa.
Betiko leloak, eta...
Berdin pentsatzen genueneko garaia.

Haragi gara.
Haragia eta erretzen duten zalantzak.
Erretzen duten zalantzak eta izerdia.
Izerdia eta...
Ez guri autokritikarik jaurti, faborez.

Hezur gara.
Hezurra eta hormatzen duen koherentzia.
hormatzen duen koherentzia eta ezintasuna.
Ezintasuna eta...
Emendakin partzialak onartuko dira bakarrik.

7. MASTURBATZAILE BAKARTIAREN BALADA

Aferaren akabua heriotza da beti.
Begiak irrist, neska hura dut lantegi;
nire tributik jaulkiz, joantzat
zauzka ene hatsak.
Aserik ni. Izututa berriz, litezkeenak lekuko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Hatzarekin hatz, nirea da orain:
gertu daukat, hitzordu bat bezain.
Zintzarria astintzen dut, makur etzanik
zuk neska estali ohi zenuen alkoban.
Lore-loretan nengoen zuk maileguan noiz hartuko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Gau hau demagun, maitea, kasuko:
elkar xuka eta lumatu dezakeenari ez egin uko,
nola buruz buru, bultzaka edo belauniko
duen bikote bakoitzak elkar zurituko,
itzulipurdi alegeran ezin geldituzko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Nire baitatik urratu naiz horrela,
mirari gogaikarria. Eta
ametsen merkatua denon bistan balitz?
Barreiatu naiz. Gurutzean josi.
Nire aran goxo, zuk arrapostuko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Nire aurkariak dauzka begi beltzak.
Uretako andere, harean dantzan,
pianoa ukitzen du puntatik hatzak,
lotsa ezpaine; txirula dirudi haren ahotsak.
Erratz-makila ote nintzen, belaun okertuko?
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Neska hark harrapatu zintuen, emakume
batek merkealdiko soinekoa apaletik nola,
eta ni birrindu nintzen harri bat bezala.
Tori zure liburuak, tori amukoak, hara.
Egunkariak dio gaur zarela ezkonduko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

Mutil eta neska, gaez dira bat.
Blusak behera, galtz-botoiak aska.
Argiak amata, zapatak orpotik at.
Gezurrez gainezkako izakiak distiraka.
Elkar jaten dutelako dira gain-elikatuko.
Gaez, bakarrik, ohea dut esposatuko.

8. KEXA ETA PROMESA (ARESTIREN MODUAN)

I

Bai bakarrik nagoela
hainbeste jende artean!
Kexatu zen
gizona.

II

Landerejalea naizen arren
harrapatzen zaitudanean
zure hezurmuinaren barnea ere
xurgatuko dizut.
Promesa egin zuen
gizonak.

9. ZURE AZALEAN IGERI

Musukatu nahi ditut
zigarroek horitutako
zure hortz bihurriak.
Miaztu zure ezpain azpiak,
marrubiak bezain gorriak.
Iritsi nahi dut besarkadaz
zure gerri zabalera.
Zimur eta bihurguneetan barna
nahi zaitut gozatu,
ardo on baten gisa
tragoz trago dastatu.

Urperatu nahi dut ahoa
zure haragi samurrean,
kosk egin ipurmasailean.
Besapeko ileak laztanduz
nahi zaitut behatu.
Zure izerdi usainak
sorgintzen nauela
belarrira xuxurlatu,
duda oro ahoz aho xukatu.
Nire begietara zein ederra zaren
lau haizetara oihukatu.

Edertasuna klixe zorrotzegiz
patentatu duen jendarte honi
zure azalean igeri eginez
nahi diot aurea hartu.

10. KANTA BILAUA

eta bat-batean bizitza
nire pobre platerean
txerri urdinezko zati iharra
hemen nire platerean

ni begiratu
zu begiratu
edo euli bat hil asmo txarrik gabe
argia suntsitu
edo sorrarazi

sorrarazi
begiak ireki eta zerua gainezka
aukeratzen duenak bezala
plater hutsean

rubens tipulak malkoak
rubens gehiago tipula gehiago
malko gehiago

hainbeste istorio
mirari beltz digerigaitzak
eta ekialdeko izarra

ogitartekoan
eta amodioaren hezurra
hain hortzikatua eta hain gogorra
beste plater batean distiran

gose propio hau
existitzen da
arimaren gura da
gorputza dena

gantzezko arrosa
zahartzen dena
bere haragizko zeruan

mea culpa begi lausoa
mea culpa mokadu beltza
mea culpa jainkozko higuina

ez dago beste inor hemen
plater huts honetan
ni baizik
neure begiak jaten
eta zureak

11. OSSO BUCO

Hezurak platerraren kontra egiten duen soinua maite dut
baita bere gotorleku itxura ere
nire aurrean, risotto harresi baten gainean
haragi hori, aingeru baten zangoa bezain samurra,
bizitza guztiz hegalaria izan duen aingeru baten haragia.
Eta onena, hezur-muin preziatua,
animaliaren barnetasun lapurtua,
ganibetarekin aterarazia, barrura doa
ardo hotz eta kitzikagarriarekin batera.

Orain afal ondoko orduan kulunkatzen naiz,
aulkian etzaniko hiritarra,
sabela beteta duen kriatura:
horra zer bait apenas entzuten dena poesian,
pobreziaren eta gosearen santuario hori...

Baina gaur, asetasunaren lehoiak
nire bularrean atzapar sendo eta beroa pausatu du,
eta zer egin dezaket? Begiak itxi eta entzun, besterik gabe,
urrutiko lotsaizunaren danborren marmarra
eta nire emaztearen barrea
gela ondoko telefonoan:
bera da osso buco zaporetsua prestatu duen emakumea,
nahi zituen hezurak zeintzuk ziren harakinari esan dioena.
Bera da urrutiko lagunari hitz egiten diona
mahai ondoan esertzen naizen bitartean
te kikara lagun, bero eta maitekor.

Nonbait harkaitzez harkaitz igo da norbait,
eskuak eta belaunak odolean, penitentziagile irlandar batek
munduaren harria urdailean daramala;
eta edonon herri guztietako jendea elkarri begira dago
mahai luze eta huts baten inguruan.

Baina hemen, kandlek distira goxoa ematen dute,
Axularri eta Oihenarti idazten lagundu zien argi bera,
historiako aurpegiak ilundu eta argitu zituen horrek
orain jotzen du plater urdinetan,
mahai-zapi zimurtuetan, gurutzaturiko ganibeta-sardexkan.

Tarte batean, gutako bat ohera igoko da
eta segituan bestea.
Gero gauaren azalaren azpitik sartuko gara,
kilometro batzuk uretan, behera eta behera
iluna eta mutua den hondorantz,
harik eta ametsen pisuak are beherago bultzatu arte,
eskisto eta xafla egiturazko arroken azpitik,
gosearen eta plazerraren estratuak baino beherago,
lurraren beraren hezur puskatuen barna,
ezagutzen dugun toki bakarreko hezur-muinerantz.

Poema hauek
La Bodega tabernan irakurri ziren
jendaurrean
2017ko azaroaren 22an
Urdaiazpikoa eta Poesia I (#haragia)
ekitaldian

Poesia

+



Izena:

A ALDEA

- | | | |
|-------------------------------|--------------------------|-----------------------|
| 1. DENA DA HARAGIA | <input type="checkbox"/> | Arantxa Urretabizkaia |
| 2. ANTSIEN OHARRAK | <input type="checkbox"/> | Damián Pedrosa |
| 3. HARAGI HONEK NAHI DU LIBRE | <input type="checkbox"/> | Eider Rodriguez |
| 4. MEMORIAL | <input type="checkbox"/> | Ingeborg Bachmann |
| 5. LIZUNKERIAK | <input type="checkbox"/> | Joxe Azurmendi |
| 6. AGURRA | <input type="checkbox"/> | Juanra Madariaga |
| 7. AGUR-KEINUA | <input type="checkbox"/> | Leire Bilbao |
| 8. HARAGIA | <input type="checkbox"/> | Maria Merce Marçal |
| 9. HITZA HARAGIA BIZITZA | <input type="checkbox"/> | Miren Agur Meabe |
| 10. EULIAK | <input type="checkbox"/> | Omar Nabarro |
| 11. HARAGI GALDUA | <input type="checkbox"/> | Seamus Heaney |

B ALDEA

- | | | |
|----------------------------------|--------------------------|---------------------|
| 1. MAITASUNA | <input type="checkbox"/> | Amaia Lasa |
| 2. AMODIO PROTOPOEMA | <input type="checkbox"/> | Anne Sexton |
| 3. HILDAKO EMAKUMEENTZAT... | <input type="checkbox"/> | Audre Lorde |
| 4. HARAGIA ETA URDAI AZPIKUA | <input type="checkbox"/> | Billy Collins |
| 5. HARAGIA ETA ODOLA | <input type="checkbox"/> | Blanca Varela |
| 6. GARENA | <input type="checkbox"/> | Ekhine Eizagirre |
| 7. MASTURBATZAILE BAKARTIAREN... | <input type="checkbox"/> | Harkaitz Cano |
| 8. KEXA ETA PROMESA | <input type="checkbox"/> | Joseba Sarrionandia |
| 9. ZURE AZALEAN IGERI | <input type="checkbox"/> | Joxe Kruz Aranberri |
| 10. KANTA BILAUA | <input type="checkbox"/> | Unai Maleski |
| 11. OSSO BUCO | <input type="checkbox"/> | Xabier Montoia |